



FEMINISMOAREN sareetara salto egin

UNITATE DIDAKTIKOA



FEMINISMOAREN sareetara salto egin

SArEra


«Feminismoaren sareetara salto egin!» lelopean sortu dugu aurten Martxoak 8ko unitate didaktiko berria. Honetan sare sozialek sortzen duten biolentzia sinbolikoaz hausnartu eta transfeminismoa honi aurre egiteko alternatiba bakartzat aurkeztu nahi dugu oraingoan.

Gaur egungo jendartean, sare sozialak bihurtu dira haur eta gazteek informazioa jasotzeko, erreferentzia-ereduak eraikitzeko eta munduaz duten ikuspegia osatzeko duten bide nagusietako bat. Hala ere, irudi, mezu eta edukien etengabeko jario hori sakonki baldintzatzen dute indarkeria sinbolikoen, genero estereotipoek, diskurtso kontserbadoreek eta iruditegi atzerakoiek; berdintasuna sustatu ordez, desberdintasunak eta rol zurrinak iraunarazten baitituzte.

Mezu horiek plataforma digitaletan duten gorakada dela eta, ezinbestekoa da ikasleei kontsumitzen dutena kritikoki interpretatzeko tresnak eskaintzea. Sareek ez dute errealitatea bakarrik erakusten: distorsionatu, hautatu eta moldatu ere egiten dute, identitatearen, autoestimuaeren eta harreman sozialen eraikuntzan zuzenean eraginez.

Eszenatoki honen aurrean, «Feminismoaren sareetara salto egin!» unitate didaktikoak alternatiba eraldatzailea proposatzen du, eta horregatik, «Sare» terminoa esanahi bikoitzarekin erabiltzen da. Alde batetik, sare sozial digitaletan ari delako eta bestetik, sareak komunitate-sare gisa, transfeminismoaren sinbolo gisa, kolektibotasuna eta aukera-berdintasunak mantentzeko tresna gisa aurkezten delako. Finean, beraz, sare digitalen bitartez iristen zaigun biolentzia sinbolikoaren aurrean alternatiba bakarra transfeminismoaren sareak eskaintzen diguna litzateke. Era berean, borroka honetan ere erreferente izan diren eta diren hainbat pertsona (ber)ezagutzeko eta goraipatzeko aukera izango dute ikasleek.

Proposamen honen helburua da ikasleek, txikitatik, estereotipoak ezagutzen ikastea eta hauen aurrean ikuspegi kritiko bat garatzea. Era berean, bestelako begirada baterako aukerak daudela erakutsi nahi da. Unitate didaktiko honen bidez, hezkuntza kritikoa alde egiten da, ikasleek aukera izan dezaten kontsumitzen dituzten mezuen boterea irakurri eta ulertzeko, beren egunerokotasunean dauden indarkeria sinbolikoaren forma sotilez ohartzeko eta sare justuagoak eraikitzeko, bai eskola barruan eta baita eskolatik kanpo ere.





AUrKibidea

| | |
|---------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 1. Abiapuntua | 6 |
| 2. Jarduerak | 8 |
| 2.1. Aurkezpena eta motibazioa | 8 |
| 2.2. 0-3 etapa | 9 |
| 2.3. Haur Hezkuntza (3-6 urte) eta LH 1. ziklorako jarduerak | 10 |
| 2.4. LH 2. eta 3. ziklorako jarduerak | 14 |
| 2.5. DBHko 1. eta 2. mailatarako jarduerak | 17 |
| 2.6. DBHko 3. eta 4. mailak eta Batxilergorako jarduerak | 23 |
| 3. Ebaluazioa | 31 |
| 4. Eranskinak | 33 |
| 1. eranskina: LH 2. eta 3. zikloko 2. jarduerarako | 33 |
| 2. eranskina: DBH 1. eta 2. mailarako jarduerak. 5. jarduera | 34 |
| 3. eranskina: DBH 1. eta 2. mailarako jarduerak. 7. jarduera | 36 |
| 4. eranskina: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak, 2. jarduera | 37 |
| 5. eranskina: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak, 3. jarduera | 38 |
| 6. eranskina: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak, 4. jarduera | 42 |
| 7. eranskina: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak, 6. jarduera | 44 |
| 5. Baliabide gehigarriak | 45 |



1. AbiapUNTua

HELBURU OROKORRA

Inposaturiko genero rolen
aurrean disidentziak
goraipatzea.

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Ezagutza sortzea emakume eta gizonen arteko rol banaketaren inguruan eta bakoitzari egokitzen zaizkien estereotipoen inguruan.
- Sareen eraginaren inguruan kontzientzia hartzea rol eta estereotipo horien eraikuntzan.
- Rol eta estereotipo horien disidenteak direnak ezagutzea.
- Erreferente berriak sortzea.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- Feminismo kontzeptua eta haren balioa ezagutzera ematea.
- Ingurune sozialarekiko errespetua sustatzea.
- Ikasleen artean kontzientzia kritikoa sortzea.
- Sareek gaur egun gure jendartean duten eraginez hausnartzea.

EDUKIAK

- Feminismoa
- Jendarteko estereotipo eta genero rolak
- Emozioen kudeaketa
- Pentsamendu logikoa
- Autoestimua eta nortasuna
- Erreferente diren emakume eta disidenteak
- Sareek gure jendartean duten lekua
- Sareetako algoritmoak
- Manosfera kontzeptua
- Gailu elektronikoen erabilera
- Red flag-ak eta indarkeria ezberdinak



2. JOrdUERak

2.1. AURKEZPENA ETA MOTIBAZIOA

Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa

Materiala: STEILASek aurkeztutako kartela.

Iraupena: saio bat.

Taldekatzea: talde handian.

Garapena:

- 1 Irakasleak ageriko leku batean jarriko du STEILASen kartela.
- 2 Galdera desberdinen bidez hausnarketa bideratuko da:

- Gustuko duzue kartela? Zer da gehien gustatzen zaizuena? Eta gutxien?
- Zer irudi ikusten duzue kartelean?
- Zer esan nahi du bertan agertzen den irudiak?
- Zer adierazten du kartelaren leloak?
- [...]



2.2. 0-3 ETAPA

HAUR-ESKOLETAKOEI DAGOKIENEZ, jarduera zehatzak proposatu baino, hezitzaileek gela barruan duten jarreraren garrantzia gogorarazi nahi dugu, horrekin sortzen duten iruditeriari ere lekua eginez. Ezin dugu ahaztu adin horietako umeez behaketaren eta esperimentazioaren bidez ikasten dutela nagusiki. Mugikorra erabiltzen ikusten bagaituzte, oso gauza interesgarri eta erakargarritzat har dezakete, eta horrek erraztu egiten die mugikorrera eta, oro har, pantailetara hurbiltzeko jakin-mina.

Gainera, hezitzailea mugikorrari begira dagoenean, bai adingabeekiko kontaktu bisuala eta baita haien beharrei berehala eta egoki erantzuteko gaitasuna ere murriztu egiten dira. Horrek eskainitako arretaren kalitatean eragin zuzena du, eta segurtasun ezaren sentazioa sor dezake haurrengan.

Horregatik guztiagatik, ikasgeletan mugikorra erabiltzeari buruz hausnartzera eta gailu elektronikorik gabeko espazioak sortzera animatzen zaituztegu, adingabeenganako erabateko prestasuna eskainiz eta emozionalki osasungarria izan daitekeen giroa bultzatuz.



Haur Hezkuntza
(3-6 urte) eta
LH 1.

2.3. HAUR HEZKUNTZA (3-6 URTE) ETA LH 1. ZIKLORAKO JARDUERAK

1. jarduera: KONTSUMITZEN DUGUN IRUDITEGIAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Materialak: itzalitako pantaila baten irudia eta «Aske izan koloretan» ipuina.

Iraupena: saio bat edo bi.

Taldekatzea: talde handian.



https://steilas.eus/wp-content/uploads/2022/12/ASKE.IZAN_.DOM_.A3.EUS_compressed.pdf



Garapena:

➔ Pantailetan kontsumitzen den iruditegiari eta gizarteko estereotipoei buruz hausnartuko da.

1 Zer ikusten dugu pantailan? Hurrei itzalita dagoen tablet, ordenagailu edo telebista bat (edo hauetako baten irudi bat) erakutsiko zaie eta galdera desberdinak eginiz hausnarketa bideratuko da. Eztabaida bideratzeko galdera posibleak:

- Zuen ustez, nolakoak dira haur horiek?
- Zangaluze horiek nolakoak direla uste duzue?
- Zuen ustez, nola sentitzen da pertsonaia bakoitza?
- Zeinekin identifikatzen zarete? Zer gustatzen zaizue?
- [...]

2 «Aske izan koloretan» ipuina irakurri aurretik, ipuineko pertsonaiei buruzko hausnarketa egingo da bakoitzaren aurrezagutzetan oinarrituz:

- Nolakoak uste duzue direla haur hauek? (5. orrialdeko irudia erakutsi).
- Nolakoak uste duzue direla Zangaluze hauek? (7. orrialdeko irudia erakutsi).
- Nola uste duzue sentitzen dela pertsonaia bakoitza? (haurrak zein Zangaluzeak).

OHARRA: Taldearen arabera erabakiko da jarduera hau egin daitekeen edo ez. Haurrek haien egunerokoan ez baldin badituzte pantailak erabiltzen, jarduera hau ez da egingo.

Haur Hezkuntza
(3-6 urte) eta
LH 1.

2. jarduera: «ASKE IZAN KOLORETAN»

Materialak: «Aske izan koloretan» ipuina, horma-irudirako paper handia, errotulagailuak eta margoak, gelan erabiltzen diren emozioak adierazten dituzten txartel edo irudiak.

Iraupena: saio bat edo bi.

Taldekatzea: talde handian.


Garapena:

- Sexu edo genero estereotipoak arauaz gaindi tratatzen dituen ipuina irakurri ondoren, gaia lantzeko hainbat jarduera proposatzen dira.
 - **Emozioen kudeaketa:** galdera desberdinak eginez ipuineko pertsonaiek dituzten emozioei buruz hausnartuko da. Egoeran kokatzeko, laguntza moduan, ipuineko irudiak erakutsi daitezke.
 - Zuen ustez, nola sentitzen da Mixel gona ezin duela jantzi esaten diotenean Zangaluzee? Zuek zer egingo zenukete egoera horren aurrean? Sentitu al zarete inoiz horrela? (8. orrialdeko irudia erakutsi).
 - Zuen ustez, nola sentitzen da Gexan negar ezin duela egin esaten diotenean zangaluzee? Zergatik uste duzue esaten diotela hori? Zuek zer egingo zenukete egoera horren aurrean? Sentitu al zarete inoiz horrela? (10. orrialdeko irudia erakutsi).
- Gelan erabiltzen diren emozio-txartelak edota emozioak adierazten dituzten irudiak erabil daitezke sentimendu horiek identifikatzeko eta izendatzeko.
- **Pentsamendu kritikoa eta soziala:** eztabaidatu ipuineko pertsonaia desberdinak izanda nola jokatu lukeen bakoitzak.
 - Mixel, Gexan, Xole edo Maixa izango bazina zer esango zenieke Zangaluzeei? Nola jokatu zenuke?
 - Ezagutzen al duzue Zangaluzerik? Nolakoak dira? Zer esaten dizute edo zer esaten dute?
 - Zein iritzi duzue? Horrela izan beharko luke, edo ez?



Haur Hezkuntza
(3-6 urte) eta
LH 1.

- **Pentsamendu logikoa eta kausa-efektua:** Zangaluzeen eraldaketan (beltzetik koloretara) arreta jartzea, hurrek kronologikoki ordenatu eta eraldaketari buruz hitz egiteko:
- Zer gertatu zaie Zangaluzeei?
 - Zergatik uste duzue?
 - Nori esker koloreztatu dira?
 - Nolakoak ziren ipuinaren hasieran eta nolakoak dira orain?
 - Zein gustatzen zaizue gehien?
 - Zer sentitzen dute Zangaluzeeek hasieran eta zer amaieran?
- **Autoestimua eta nortasuna:** ikasleak ispiluaren aurrean jarriko dira eta bakoitzak ozen esango du bere buruaz gustatzen zaion zerbait («Nire begiak gustatzen zaizkit», «Oso azkar korrika egiten dudala gustatzen zait»). Ondoren, bakoitzaren autoerretratuez osatutako horma-irudi bat egingo da, marrazkietan bakoitzari bere buruaz gustatzen zaiona nabarmenduz.



Marrakia: Dom Campistron

Haur Hezkuntza
(3-6 urte) eta
LH 1.

3. jarduera: ESTEREOTIPOAK HAUSTEN

Materialak: material desberdina eskainiko da adinaren edo taldearen arabera egokiena aukeratu ahal izateko. **Esteka honetan** hurrengo materialak eskaintzen dira:

- Argazkia, izena eta azalpena duen txantiloia (letra larrian eta letra txikian)
- Memoria jolasa: Feminismoaren aitzindari zein gaur egungo feministen memoria jolasa (adin guztietarako egokia).
- Izena eta azalpena elkarlotzeko jolasa (letra larrian eta letra txikian)
- Argazkia eta izena dituen txantiloia, azalpena norberak idazteko.

Iraupena: saio bat edo bi.

Taldekatzea: talde txikitan.


Garapena:

→ Historian zehar zein gaur egun estereotipoak hautsi dituzten eta feminismoaren alde borroka egin duten emakume eta disidenteen inguruko lanketa egingo da.

→ Hurrengo emakume eta disidenteak landuko dira ariketa honetan:



FRIDA KHALO



KATHERINE SWITZER



CLARA CAMPOAMOR



GRACE O'MALLEY



YOGURINHA BOROVA



LESLIE FEINBERG



MALALA YOUSAFZAI



PATRI ESPINAR


2.4. LH 2. ETA 3. ZIKLORAKO JARDUERAK
1. jarduera:
IKUSI-MAKUSI, ZER IKUSI?

Materialak: papera, argazkiak eta bolalumak.

Iraupena: 45 minutu.

Taldekatzea: 4ko taldeak (egokitu talde kopuruaren arabera).

Garapena:

- Irakasle bakoitzak ikasleak 4ko taldeetan banatuko ditu eta bertan azaltzen diren irudiak beharrik honako galderak erantzungo dituzte. Talde bakoitzari argazki bat banatuko zaio. Lotura honetan irudiak: <https://lanbroa.steilas.eus/s/ro5cYfb5rjbzdDP> 
- Zer egiten dute? Zer ikusten ari dira?
- Zein gailutan? Norena da?
- Zein sare sozial edo eduki kontsumitzen dute?
- Nola sentitzen dira hori ikusi eta gero?
- Taldeetan egin beharreko lana egin eta gero beste taldekideei aurkeztuko diete zer istorio asmatu duten irudi horren inguruan.
- Aurkezpena egin ondoren talde hausnarketa egingo dute, ariketari bukaera emateko.
 - Zergatik iritsi zarete ondorio horietara?
 - Zerk baldintzatu du zuen erabakia?
 - Taldeko neska eta mutilen iritziak berdinak izan dira?



2. jarduera: SAREAN DAUDEN PERTSONAK EZAGUTUZ

Materialak: papera, bolaluma, arbela.

Iraupena: 2 saio.

Taldekatzea: talde handia eta banaka.

Garapena:

- Zein sare sozialetako erabiltzaile/sortzaile ezagutzen ditugu? Denon artean ikasleek ezagutzen dituzten eduki sortzaileen inguruko zerrenda osatuko dugu arbelean.
- Ondoren, adibide batzuk erakutsiko dizkiegu, ezagunak dituzten jakiteko edo ez:

ARANTXA PARREÑO
LOLA LOLITA
TWIN MELODY

<https://www.youtube.com/@LosjuguetesdeArantxa>

<https://www.tiktok.com/@lolalolita?lang=es>

<https://www.youtube.com/@TWINMELODYOFFICIAL>

<https://www.instagram.com/twinmelody/?hl=es>

EL RUBIUS
AGUSTIN 51
NACHTER

<https://www.youtube.com/@elrubiusOMG>

<https://www.youtube.com/@Agustin511>


<https://www.youtube.com/@Nachter>



- Hausnarketa burutuko dugu banaka 1. eranskineko galdetegia erantzunez (33. or.). Ondoren, talde handian elkarbanatuko dugu norberaren hausnarketa. Beharrezkoa bada 5 minutuz utziko diegu ordenagailuetan begiratzen bideo edo argazki batzuk.



ARANTXA PARREÑO



LOLA LOLITA



TWIN MELODY



EL RUBIUS



AGUSTIN 51



NACHTER

3. jarduera: ESTEREOTIPOAK HAUSTEN

Materialak: material anitzak, egunkaria, koloretako kartulinak, aldizkariak, oihalak, margoak, errotulagailuak...

Iraupena: 2 saio.

Taldekatzea: bakarka.

Garapena:

- ➔ Historian zehar estereotipoak hautsi dituzten eta feminismoan aintzindari izan diren emakumeak ezagutzen ditugun galdetuko dugu eta zerrenda osatu.
- ➔ Bakarka ikasle bakoitzak emakume bat aukeratu beharko du, horrelako estereotipoei aurre egin dietenak eta beste modu batez matxismoari aurre egin dietenak, izan artearen bitartez, zientzian, politikan, ikasgeletan... (Baliabideetan hainbat erreferentzia topatuko dituzue informazioa lortzeko).

OHARRA: Nahi izanez gero, argazki batzuk atera egindako artelanei eta gero guri bidali helbide honetara:

idazkaritzafeminista@steilas.eus



BALIABIDEAK



Errebelde 50 bider



WikiEmakumeok



Emariak



Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes



Feminismo para principiantes

- ➔ Aukeratutakoan collage bat egin emakumearen irudiarekin eta hainbat datu interesgarri eta esanguratsurekin, A4 formatuan.

2.5. DBHKO 1. ETA 2. MAILETARAKO JARDUERAK

1. jarduera: MAKINAREN MENUA


Materialak: arbela, klarionak eta post-it-ak.

Iraupena: 15 minutu.

Taldekatzea: talde handian.

Garapena:

- Algoritmoak ez du guk ikasi dezagun nahi, pantailari lotuta egotea baizik. Hori ikusarazte aldera talde handian honako galdera hau egingo zaie ikasleei: «Zuen ustez, zergatik agertzen zaizkizu bideo mota berdinak behin eta berriz?».
- Galdera erantzun eta gero, arbelean robot bat marraztuko dugu («Algoritmoa»). Ikasleek post-it bidez «elikagaiak» emango dizkiote: Futbola • Dantzak • Broma Astunak • Makillajea • Haserrea.



2. jarduera: BIDEOA ETA HAUSNARKETA

Materialak: pantaila eta bideoa.

Iraupena: 15 minutu.

Taldekatzea: talde handian.

Garapena:

→ **Irati Erauskinen bideoa:** Irati Erauskin: «Sare sozialetan autoestimurik gabe harrapatzen bazaituzte egurra ematen dizute» erabili daiteke, baina fokua autoestiman jarritz: «Nola sentitzen zara bideo perfektuak ikusten dituzunean?».

3. jarduera: NIRE BIDEA

Materialak: egoera eta koaderno.

Iraupena: 20 minutu.

Taldekatzea: egoeraren azalpena talde handian eta ekoizpena banaka.

Garapena:


- Honako egoera irakurriko zaie ikasleei: Jonek (1. mailakoa) saskibaloiko bideoak ikusi nahi ditu. Algoritmoak lehenengo bideoa «Saskiratze onenak» erakusten dio. Bigarren bideoak honela dio: «Mutil baxuek ezin dute jokatu». Hirugarren bideoak izenburu hau du: «Izan zaitetz indartsua edo galdu egingo duzu».
- Ondoren ekoizpenari ekingo diogu. Horretarako bide hori marraztu behar dute eta identifikatu non hasten den «haserrea» edo «tristura». Ideia nagusia da algoritmoak ez duela lagunik nahi, zure denbora baizik.

4. jarduera: BIDEOAREN AZTERKETA

Materialak: bideoa eta koaderno.

Iraupena: 30 minutu.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikietan.



Garapena:

- **RTVEko bideoa:** ikusi ondoren, arbelean honako galderak kopiatuko ditugu edo proiektatu arbel digitalean.
- Taldeka erantzun beharko dituzte:
 - Zer da manosfera?
 - Nork osatzen du manosfera?
 - Zergatik uste duzu sortu dela manosfera?
 - Zein da manosfera barruan dauden pertsonen helburua? Zein da diskurtsoa?
 - Zeintzuk dira diskurtso horren barruan errudunak?
 - Ezagutzen duzue barruan dagoen pertsonaren bat? Ezagunak egin zaizkizue bideoan agertu diren gizonak?

DBH 1. eta 2.

5. jarduera: RED FLAG-AK DETEKTATZEN

Materialak: dinamikaren arabera fitxa edo fitxako esaldiak.

Iraupena: 30 minutu.



Taldekatzea: talde handian eta talde txikietan.



Garapena:

OHARRA: Bi dinamika ezberdin proposatzen ditugu, egin ezazu zure taldearen arabera.

- **A aukera:** «Red Flag» Digitalak: talde bakoitzari «mezu mota» bat emango zaio eta «Red Flag» (alarma) bat den ala ez erabaki behar dute. Ikasleei fitxa bat (2. eranskina, 34. or.) eman hainbat esaldirekin eta markatu behar dituzte.
- **B aukera:** «Red Flag» Digitalak: talde handian «mezu mota» bakoitzaren inguruko iritzia eman beharko dute gelako espazioan kokatuz (mezuak A egoerarako prestatu den ikasleen fitxan dituzue). Ikasgelan 3 zonalde definituko ditugu, irudian zehazten den bezala: Alde batean Red Flag (alarma), beste aldean, Safe (errespetuzkoa) eta erdian arreta bada edota argi ez badute. Esaldi bakoitza esatean ikasleak haien iritzia araberako eremura joan beharko dira.



6. jarduera: ZURE SAREA, ZURE TALDEA


Materialak: mugikorrak, ordenagailuak eta/edo kartulinak.

Iraupena: 55 minutu (saio bat inguru).

Taldekatzea: banaka eta taldeka.

Garapena:

→ **Dinamika:** Garbitu zure Explore. Ikasleek mugikorra hartu (irakaslearen gainbegiradapean) eta «Ez zait interesatzen» botoia erabiltzen ikasiko dute eduki matxista edo agresiboen aurrean.



→ **Mapaketa:** Erreferenteak: Taldeka, haientzat gertukoak diren erreferenteak bilatuko dituzte. Hauek izan daitezke adibide batzuk:

- **Musika:** Kai Nakai edo Izaro (mezu indartsuak eta positiboak).
- **Kirola:** Emakumezko futbolariak edo kirolariak (berdintasunaren ereduak).
- **Erakundeak:** Beldur Barik-eko bideo laburrak ikusi.

- **Sorkuntza:** Gure horma-irudia sortuko dugu. Canva edo paper handi batean, gelako dekalogoia sortuko dugu aplikazioaren eta edukien erabilera seguruaren inguruan: «Jarraitu beharreko 3 kontu eta Unfollow egiteko beste 3».
- Irakasleak eman ditzakeen **aholkuak:**
 - Batzuetan bilatu nahita bestelako iritziak eta edukiak.
 - Ezarri denbora-mugak aplikazioetan.
 - Jarraitzen dituzun kontuak berrikusi aldian-aldian.
 - Blokeatu edo isilarazi eduki kaltegarriak.
 - **Emozio biziak sortzen dituen edukia** (amorrua, beldurra, gorrotoa) bereziki aztertu behar da.
 - Eduki batek **deserosotasuna, beldurra** edo **nahasmena** sortzen badu, ez da bakarrik kudeatu behar.
 - Garrantzitsua da **irakasleekin, familiarekin** edo **konfiantzazko helduekin** hitz egitea.
 - Ez fidatu sarean gehien ikusten denarekin: ez da beti egia edo errealitatearen isla.
 - Sarean ikusten denak **ez du identitatea edo balioa definitzen**.
- **Adi seinale hauei:**
 - Emakumeak erruduntzat jotzea arazo pertsonalengatik
 - «Gu vs. haiek» diskurtso sinpleak
 - Indarkeria edo mendekua justifikatzea
 - «Inork esaten ez duen egia» bezalako mezuak

7. jarduera: AUTOEBALUAZIO TAULA

Materiala: taula.
Iraupena: 10 minutu.
Taldekatzea: banaka.

Garapena:

- Ikasle bakoitzari taula bat banatuko zaio (3. eranskina, 36. or.) bere autoebaluazioa egin ahal izateko.

| Gaitasuna | Bikain | Hobetu beharra |
|---------------|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|
| Algoritmoa | Badakit nola aldatzen den ikusten dudana interakzioen bidez. | Ez dut ulertzen nola funtzionatzen duen. |
| Errespetua | Umore toxikoa eta errespetuzkoa bereizten ditut. | Normalizatu egiten ditut mezu sexistak. |
| Erreferenteak | Euskarazko erreferente positiboak identifikatzen ditut. | Ez dut erreferente positiborik ezagutzen. |

DBH 3. eta 4. eta Batxilergoa

2.6. DBHKO 3. ETA 4. MAILAK ETA BATXILERGORAKO JARDUERAK

1. jarduera:
ZER DA MANOSFERA ETA NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Materialak: ordenagailua, pantaila, post-it-ak, infografia.
Iraupena: 55 minutu (saio bat).
Taldekatzea: talde handia.

Garapena:

→ Sarrera gisara honako galdera irekia egin. Ideia-jasa Padlet online edo Post-it-en bitartez egin daiteke.

- Nor agertzen zaizue TikTok edo Instagramen «arrakastari», «maskulinitateari» edo «ligatzeari» buruz hitz egiten denean?



→ **Bideo hau ikusiko dugu (6'52'')**: Irati Erauskin: «Sare sozialetan autoestimurik gabe harrapatzen bazaituzte egurra ematen dizute». Ideia hau azpimarratu dezakezue: nolakoa den deskribatzen duen sareetako eraso antolatua.



→ Manosferaren «Mapa»ren infografia **ikusi lotura honetan**: infografia. «Gizonen mundu digitala: foroek, influencerrek eta diskurtso antifeministek osatua. Manosfera ez da webgune bakar bat, baizik eta elkarrekin lotuta dauden komunitateen multzoa».



Manosfereran barruan talde hauek bereiz daitezke:

- Inzelak (Incel): Beren frustrazio sexuala emakumeen aurkako gorroto bihurtzen dutenak.
- Sedukzioko Guru-ak (PUA): Emakumeak «konkistatu» beharreko objektu gisa tratatzen dituztenak, teknika manipulaztaileak erabiliz.
- MGTOW (Men Going Their Own Way): Emakumeekin harremanik ez izatea proposatzen dutenak, «aske» izateko.
- «Alfa» diskurtsoa: Arrakasta lortzeko hiper-maskulinitatea, dirua eta giharrak gurtzen dituzten influencerrak.
- MRA (Men's Rights Activists): Gizonen eskubideak defendatzen dituztenak (Ez dira feministen parekoak)
- Youtuber Antifeministak: Feminismoa kritikatzan dute eta emakumeak gutxiesten dituztenak.
- Emakume Antifeministak: Femeninoak direla uste duten emakumeak, baina ez ordea feministak.

ETAPA 1: ATRAER (EL PICKUP)

A1: Abrir el grupo
Acércate en 3 segundos, usa un "abridor" indirecto y no muestres interés en tu objetivo.

A2: Generar interés de ella hacia ti
Demuestra Valor Superior (DVS) al grupo y usa "negs" para desafiar sutilmente a tu objetivo.

ETAPA 2 Y 3: CONFORT Y SEDUCCIÓN

C: Construir Confort (El Juego Medio)
Crea confianza y conexión durante un promedio de 4 a 6 horas para evitar el "remordimiento del comprador".

La Regla de las Siete Horas
Media de siete horas acumuladas de confort

Resistencia de Último Minuto

Family, not feminists

SAVE INDIAN MEN

2. jarduera: MANOSFERA AZTERTU TALDEETAN

Materiala: fitxa.
Iraupena: 30 minutu.
Taldekatzea: talde txikiak.

Garapena:

- Ikasleak taldeka jarri, 4 edo 5 pertsonako taldeak osatuz. Ez dugu edukia aztertuko, estiloa baizik: Zergatik erabiltzen dute bideo azkarren formatua? Zergatik bilatzen dute haserrea sorraraztea bideo hauek?
- Taldeka fitxa bat (4. eranskina, 37. or.) eman galderekin, eurek hausnartzeko. Erantzunetan ez dute zertan izenik eman, ikusitako joerak baizik.

IRAKASLEENTZAKO GAKOAK

Hiztegi propioa

- Ez badakite bat ere ez, adibideak jar daitezke: Red Pill, Blue Pill, Sigma, Alfa, Simp...
- Talde baten kide sentiarazteko eta kanpokoak «itsu» daudela sinestarazteko.

Estetika eta Formatua

- Horrelakoak dira estetikoki bideo laburrak: azkarrak, musika agresiboa edo epikoa, azpтитulu handiak, luxuzko autoak edo gimnasioak azaltzen dira.

«Etsaiaren» eraikuntza

- Feminismoa, emakumeak, legeak, «modernitatea».

DBH 3. eta 4. eta Batxilergoa

3. jarduera: ALGORITMOAREN KATEA

Materiala: ikaslearen fitxa.
Iraupena: 20 minutu.
Taldekatzea: talde txikiak.

Garapena:

➔ Talde bakoitzari egoera bat (5. eranskina, 38. or.) emango zaio txarteletan bertan azaltzen diren egoeren inguruan hausnartu dezaten. Honekin ondorio honetara heldu nahi dugu: algoritmoak ez du egia bilatzen, «engagement»-a (interakzioa) baizik. Ezin ahaztu, haserreak interakzioa dakarrela. Gerta daiteke ikasleren batek diskurtso horiek defendatzea, beraz, komeni da talka zuzenean ez sartzea. Horretarako, erabili galdera sokratikoak, hala nola:

- Zergatik uste duzu influencer horri zu haserre egotea interesatzen zaiola?
- Zer irabazten du hark zu horrela sentitzean? (Normalean: harpidetzak, ikustaldiak eta dirua).

1. egoera: Tristura kudeatzen (Emozio negatiboak saritu)
 Mikel mutil gaztea da. Bere neska-lagunak utzi bere haustura bat» bilatu du. Lehenengo bideoa lagun zaituzten» gaia duen bideo bat da, eta hirugarren...

2. egoera: Kirola eta auto-irudia (Intseguritatea)
 Jon mutil argala da eta segurtasun falta du bere gorputzarekin. Gimnasioa josten hastea pentsatu du eta Instagramen «etxean egiteko arketak» bilatu ditu. Lehenengo bideoak osasungarriak dira. Handik gutxiara, «esteroideak vs naturala» bideoak agertzen zaizkio. Azkenik, influencer bat agertzen da esanez: «Zure gorputza kaskarra bada, er...

3. egoera: Umorea eta «Meme» toxikoak (Normalizazi)
 Anderri asko gustatzen zaio umorea eta memeak bidaltzen dizkie lagunei Whats «bromas de parejas» ikusten hasi da. Hasieran bideo barregarriak dira. Laster, « buruzko meme sexistak agertzen zaizkio. Hortik, feminismoari buruzko txantxa da algoritmoa, eta azkenik, podcast bat agertzen zaio non gizon batek esaten di...

4. egoera: Bideo-jokoak eta streaming-a (Komunitatea)
 Ikerrek Twitch-en bideo-jokoan stream-ak ikusten ditu gauero. Bere streamer gogokoena joko baten pertsonaia femenino bati buruzko kritika egiten du «progrea» delako. Youtube-k streamer horren «clip» gehiago gomendatzen dizkio. Handik, «Kultura Woke-aren porrota» izeneko bideoetara doa. Azkenik, Ikerri bideo-saiera bat agertzen zaio esanez: «Emakumeek gure espazioak (bideo-jokoak) inbaditu dituzte eta gizonak baztertuta gaude».

Aztertu beharrekoa

Hausnarketan laguntzeko

Osatu bere «bidea»:

• Hasierako bilaketa (Normala):

• Algoritmoaren lehen gomendioa (Horia):

• Katearen amaiera (Red Flag - Manosfera):

Hausnarketan laguntzeko: Nola

Beldurtuta | Haserre | Seguru | B

Aztertu beharrekoa

Hausnarketan laguntzeko

Osatu bere «bidea»:

• Hasierako bilaketa (Normala):

• Algoritmoaren lehen gomendioa (Horia):

• Katearen amaiera (Red Flag - Manosfera):

Hausnarketan laguntzeko: Nola

Beldurtuta | Haserre | Seguru | Boteretsu (besteen gainetik) | ...

4. jarduera: «RED FLAG» DIGITALAK

Helburua: Diskurtso horien atzean dauden manipulazio estrategiak identifikatzea edukia erreproduzitu gabe.

Materialak: dinamikaren arabera fitxa edo bertako esaldiak.


Iraupena: 30 minutu.

Taldekatzea: talde handian eta talde txikietan.

Garapena: ←

- **A aukera:** «Red Flag» Digitalak: Talde bakoitzari fitxa bat (6. eranskina, 42. or.) eman hainbat mezurekin. «Red Flag» (alarma), ARRETA edo SAFE bat den ala ez erabaki behar dute. Esaldi hauek sailkatu eta erantzuna arrazoitu beharko dute.
- **B aukera:** «Red Flag» Digitalak: Talde handian «mezu mota» bakoitzaren inguruko iritzia eman beharko dute gelako espazioan kokatuz (mezuak A egoerarako prestatu den ikasleen fitxan dituzue). Ikasgelan 3 zonalde definituko ditugu, irudian zehazten den bezala: Alde batean Red Flag (alarma), beste aldean Safe (errespetuzkoa) eta erdian arreta bada edota argi ez badute. Esaldi bakoitza esatean ikasleak haien iritzia araberako eremura joan beharko dira.

OHARRA: Bi dinamika ezberdin proposatzen ditugu, egin ezazu zure taldearen arabera.



DBH 3. eta 4.
eta Batxilergoa

5. jarduera: SAREA FEMINISMOZ JOSI (erreferente seguruak)


Materialak: mugikorra, ordenagailua eta kartulinak.

Iraupena: 55 minutu (saio bat).

Taldekatzea: talde handia eta talde txikiak.

Garapena:

- ➔ Ikasleek mugikorra hartu (irakaslearen gainbegiradapean) eta «Ez zait interesatzen» botoia erabiltzen ikasiko dute eduki matxista edo agresiboen aurrean. «Explore» edo «Para ti» atala ireki eta 3 segundoz begiratuko dute agertzen zaiena. Zer ikusten dute? Eduki toxikorik bada, «Ez zait interesatzen» botoia nola sakatu erakutsiko da.



→ **Mapaketa:** Erreferente feminista fidagarriak bilatuko ditugu. Ikasleak taldeka banatuko dira eta bakoitzari «iturri» mota bat emango zaio aztertzeko. Helburua da jakitea zergatik diren iturri seguruak (datuak ematen dituztelako, errespetuz hitz egiten dutelako, aniztasuna defendatzen dutelako). Taldeentzako iturri proposamenak:

- **A Taldea (Komunikazioa):** *Pikara Magazine*. Aztertu euren euskarazko artikuluak. / Proyecto Mejor me callo: <<https://redplanea.org/proyecto/mejor-me-callo/>>. RTVE *Divisar antifeminismo*: <https://www.rtve.es/play/coleccion/la-manosfera-al-descubierto/3583/>
- **B Taldea (Sare Sozialak/Influencerrak):** Iratxe Gaztañaga (analista digitala) edo Eider Olaeta. Nola hitz egiten dute maskulinitateaz edo teknologiaz?
- **C Taldea (Erakundeak eta Gidalerroak):** Emakunde - Beldur Barik, Emakunde-Gizonduz Begiratu euren bideo-lehiaketak. Zer mezu zabaltzen dute gazteentzat?
- **D Taldea (Kultura eta Musika):** Bilatu euskarazko emakume artistak (adib. Neomak, Kai Nakai, Iزارo, Idoia, Olatz Salvador, Sune Bulego, Burutik, La Basu...). Nola erabiltzen dituzte sareak mezu positiboak emateko?
- **E Taldea (Feminismoz busti):** Bilatu web orriak gizonak feminismoa lantzeko (Piper Txuria: <<https://pipertxuriak.wordpress.com/>>, Proyecto Broders: <<https://www.broders.es/que-es-esto/>>, Jokin Azpiazu: <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2583/jokin-azpiazu-carballo>>, Ritzar Bacete).



→ **Ekoizpena:** «Gure sarea» Horma-irudi Digitala. Talde bakoitzak poster bat diseinatuko du (paperean edo Canva bidez) landutakoa laburbiltzeko. Atal hauek barnebidu beharko ditu egin beharreko lanak:

- a) **Izenburu erakargarria eta talde irudia:** Ikasleek arreta deituko duen izenburu bat pentsatu behar dute, adibidez: «Zure algoritmoa hackeatu: Manosferatik kanpo badago bizitza». Horretaz gain, taldearen isla izango den irudia erabili beharko dute eta gaiarekin lotura daukana.
- b) **Tranpa identifikatzea:** Red Flag-ak, mezu toxikoak seinaltzeko eta identifikatzeko gakoak.
- c) **Hiztegi kritikoa:** Manosferak erabiltzen dituen hitz berezi batzuk sartu behar dira (adibidez: Alfa, Simp, Incel). Garrantzitsua da azaltzea hitz hauek bi helburu dituztela: batetik, talde-identitatea sortzea eta indartzea eta bestetik, haien ideologia normalizatzea eta kritikak desaktibatzea.



DBH 3. eta 4.
eta Batxilergoa

- d) **Kontu seguruen zerrenda:** ikasleek aurretik aztertutako 3-5 erreferente feminista edo euskaldun gomendatu behar dituzte.
 - e) **Ekintzarako deia:** Aholku praktikoak eman behar dira sareak modu osasuntsuagoan erabiltzeko: «Ez zait interesatzen» botoia erabiltzea eduki toxikoen aurrean.
 - f) **Hashtag-ak erabiltzea:** #SaltaRedetara, #FeminismoaDBH, #SareSeguruak.
- ➔ **Itxiera:** «Follow» eta «Unfollow» konpromisoa hartuko dugu. Horretarako eta saioa amaitzeko, ikasle bakoitzak pentsatuko du jarraitzen duen eduki sortzaile edo erabiltzaile toxiko bat eta beste feminista bat. Jarraitzen duen pertsona toxikoari *unfollow* egingo dio eta feministari aldiz *follow*.



6. jarduera: AUTOEBALUAZIO ERRUBRIKA

Materiala: taula.
Iraupena: 10 minutu.
Taldekatzea: banaka.

Garapena:

- ➔ Ikasle bakoitzari taula bat (7. eranskina, 44. or.) banatuko zaio bere autoebaluzioa egin ahal izateko. Ikasle bakoitzak autoebaluzioa egingo du errubrika baten bidez.

3. EBALUAZIOA

Kartelarekin egingo dugun lehenengo jarduera ikasleek sare sozialei eta feminismoari buruzko dituzten ezagutza eta sentsibilitatea ebaluatzeko erabiliko da. Horrela, gehien landu beharreko alderdiak zein diren zehaztu ahal izango dugu.

Unitatea garatzen dugun bitartean, ebaluatuko dugu ikasleek eztabaidetan, informazioaren bilaketan eta materialaren lanketan duten parte-hartzea, behaketa sistematiko baten bidez.

Unitatea amaitutakoan, ikasleen banakako eta taldeko lana baloratuko dugu, ezarritako irizpideen arabera.

Halaber, jarduera bakoitzaren amaieran, hau ebaluatuko da: zerk funtzionatu duen eta zerk ez, nola antolatu den gela, denbora aski izan den, ikasleen motibazioa, taldea eta abar. Hori guztia prozesua eta unitatearen garapena egokitzeke erabiliko dugu.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

- Emakume eta gizonei egokitzen zaizkien rol eta estereotipoen arteko ezberdintasunak ezagutzen dituzte.
- Sareek haien nortasunean duten eraginaren inguruan kontzientzia hartu dute.
- Rol eta estereotipo horien disidenteak direnak ezagutzen dituzte.
- Erreferente berriak ezagutu dituzte.

EBALUATZEKO TEKNIKAK

- Behaketa, argazkiak, landutako materiala.

EBALUAZIO TRESNAK

- Irakaslearen eguneroko jarraipena.
- Egindako lanak.

IKASLEEN EBALUAZIOA

- Zer gustatu zaien gehien eta zer gutxien.
- Zer ikasi duten eta zertaz ohartu diren.
- Zerk harritu dituen gehien.
- Zer aldatuko luketen prozesuan.

4. Eranskinak

1. ERANSKINA: LH 2. eta 3. zikloko jarduerak. **2. jarduera**

| IZENA: _____ | TALDEA: _____ |
|-------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| Zein ideia iristen zaizkigu sare sozialetako edukiaren bidez? | |
| Ezberdintasunak ikusten ditugu eduki sortzaile gizon eta emakumeen artean? Zeintzuk dira? | |
| Zeintzuk dira jasotzen ditugun kanpo estimuluak, presioak eta estereotipoak...? | |
| Zertarako uste duzu iristen zaizkigula eduki horiek? | |
| Zuen bizitzekin antzekotasunak dituzte? Zertan bai eta zertan ez? | |
| Nola eragiten digu gure bizitzetan? Zein emozio sorrarazten dizkigu? | |




2. ERANSKINA: DBH 1. eta 2. mailarako jarduerak. 5. jarduera

Sare sozialetako algoritmoak sarritan mezu muturrekoak edo gatazkatsuak erakusten dizkigu, interakzio gehiago sortzen dituztelako.

Baina, gai al gara mezu horien atzean dagoen helburua ikusteko?

ARIKETA: Alarma-Semaforoa

Irakurri zure taldeari egokitu zaizkion esaldiak eta markatu **X** batekin zein kolore dagokion. Hona bakoitzaren azalpena argiago izan dezagun zeri egiten diogun erreferentzia:

-  **RED FLAG (X):** Argi eta garbi diskurtso manipulazaila edo gorrotuzkoa da edo gezurretan oinarritua.
-  **ARRETA (X):** «Umore» gisa mozorrotua, baina mespretxua ezkutatzen duena. «Broma» gisa mozorrotuta dator, baina azpian mezu toxikoa du.
-  **SAFE (X):** Mezua errespetuzkoa da eta berdintasuna sustatzen du. Mezua errespetuzkoa da eta ez du inor gutxiesten.


Azken zutabea (Zergatik?/Kategoria) osatzeko aukeratu hurrengo kategoriatik bat:

- Biktima-rola eta erresumina
- Maskulinitate toxikoa eta «Gizon Alfa»
- Emakumeen kosifikazioa eta kontrola
- «Woke» kultura eta espazioen inbasioa

IZENA: _____

TALDEA: _____

| Esaldia / Mezu mota |  |  |  | Zergatik? (Kategoria) |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|
| «Gaur egun gizon izatea arriskutsua da, edozein momentutan salaketa faltsu bat jarri ahal dizutelako.» | | | | |
| «Mutil batek ez luke bere sentimenduei buruz hitz egin behar, horrek ahul egiten zaitu.» | | | | |
| «Emakume baten balioa bere itxura fisikoaren arabera da.» | | | | |
| «Bideo-jokoak hondatzen ari dira pertsonaia femenino gehiegi sartzeagatik.» | | | | |
| «Gizon 'alfa' zara edo 'simp' bat zara; ez dago erdibiderik.» | | | | |
| «Ez badut berehala erantzuten, nire lagunek ulertzen dute ikasten edo beste zerbaitetan nagoela.» | | | | |
| «Nire lagunari bideo bat bidali diot, berak ikusi du baina ez dit erantzun (check urdina). Haserre ote dago?» | | | | |
| «Zure gorputza tenplu bat da: entrenatu gogor besteek zu errespetatzeko eta beldurra izateko.» | | | | |
| «Emakumeen 'ezetzak' esan nahi du pixka bat gehiago saiatu behar duzula.» | | | | |



3. ERANSKINA: DBH 1. eta 2. mailarako jarduerak. **7. jarduera**

| Gaitasuna | Bikain | Hobetu beharra |
|----------------------|--------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|
| Algoritmoa | Badakit nola aldatzen den ikusten dudana interakzioen bidez. | Ez dut ulertzen nola funtzionatzen duen. |
| Errespetua | Umore toxikoa eta errespetuzkoa bereizten ditut. | Normalizatu egiten ditut mezu sexistak. |
| Erreferenteak | Euskarazko erreferente positiboak identifikatzen ditut. | Ez dut erreferente positiborik ezagutzen. |

4. ERANSKINA: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak. **2. jarduera**

IZENA: _____ **TALDEA:** _____

| | |
|--------------------------------------------------------------------------------|--|
| Hiztegi propioa | |
| Erabiltzen al dituzte hitz bereziak? Zeintzuk ezagutzen dituzu? | |
| Zergatik asmatzen dituzte hitz berriak? | |
| Estetika eta Formatua | |
| Nolakoak dira bideoak? | |
| Nola laguntzen du estetika horrek mezua «egia» dela sinesten? | |
| «Etsaiaren» eraikuntza | |
| Nor da beti erruduna euren diskurtsoan? | |
| Zergatik da errazagoa errua kanpoan jartzea norberaren emozioak lantzea baino? | |

5. ERANSKINA: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak. **3. jarduera**

IZENA: _____

TALDEA: _____

1. egoera:**Tristura kudeatzen (Emozio negatiboak saritu)**

Mikel mutil gaztea da. Bere neska-lagunak utzi berri du eta triste dago. YouTube-n «nola gainditu haustura bat» bilatu du. Lehenengo bideoa lagungarria da, baina hurrengoa «emakumeek zergatik uzten zaituzten» gaia duen bideo bat da, eta hirugarrena «**izan zaitez alfa bat eta ez izan simp bat**».

Aztertu beharrekoa

Marrastu edo egin bide horren eskema bat. Nola egiten du algoritmoak Mikelen tristura «haserre» bihurtzeko?

Hausnarketan laguntzeko

Osatu bere «bidea»:

- Hasierako bilaketa (Normala):
- Algoritmoaren lehen gomendioa (Horia):
- Katearen amaiera (Red Flag - Manosfera):

Hausnarketan laguntzeko: Nola sentiarazi nahi du algoritmoak mutil hori?

Beldurtuta | Haserre | Seguru | Boteretsu (besteen gainera) |

IZENA: _____

TALDEA: _____

**2. egoera:
Kirola eta auto-irudia (Intseguritatea)**

Jon mutil argala da eta segurtasun falta du bere gorputzarekin. Gimnasia joaten hasia pentsatu du eta Instagramen «etxean egiteko ariketak» bilatu ditu. Lehenengo bideoak osasungarriak dira. Handik gutxira, «esteroideak vs naturala» bideoak agertzen zaizkio. Azkenik, influencer bat agertzen da esanez: «Zure gorputza kaskarra bada, emakumeek ez zaituzte errespetatuko. Mundua gogorra da eta gogorrena izan behar zara bizirauteko».

Aztertu beharrekoa

Nola bihurtzen du algoritmoak hobetzeko gogo obsesio edo besteekiko mespretxu?

Hausnarketan laguntzeko

Osatu bere «bidea»:

- Hasierako bilaketa (Normala):
- Algoritmoaren lehen gomendioa (Horia):
- Katearen amaiera (Red Flag - Manosfera):

Hausnarketan laguntzeko: Nola sentiarazi nahi du algoritmoak mutil hori?

Beldurtuta | Haserre | Seguru | Boteretsu (besteen gainetik) | ...

IZENA: _____

TALDEA: _____

3. egoera:

Umorea eta «Meme» toxikoak (Normalizazioa)

Anderri asko gustatzen zaio umorea eta memeak bidaltzen dizkie lagunei WhatsAppez. TikTok-en «bromas de parejas» ikusten hasi da. Hasieran bideo barregarriak dira. Laster, «emakumeen logikari» buruzko meme sexistak agertzen zaizkio. Hortik, feminismoari buruzko txantxa iraingarrietara pasatzen da algoritmoa, eta azkenik, podcast bat agertzen zaio non gizon batek esaten duen: «**Gaur egun ezin da ezer esan, feministek dena debekatu nahi dute**».

Aztertu beharrekoa

Nola erabiltzen duen manosferak umorea diskurtso misoginoak «normalak» balira bezala sartzeko?

Hausnarketan laguntzeko

Osatu bere «bidea»:

- Hasierako bilaketa (Normala):
- Algoritmoaren lehen gomendioa (Horia):
- Katearen amaiera (Red Flag - Manosfera):

Hausnarketan laguntzeko: Nola sentiarazi nahi du algoritmoak mutil hori?

Beldurtuta | Haserre | Seguru | Boteretsu (besteen gainetik) |

IZENA: _____

TALDEA: _____

4. egoera:

Bideo-jokoak eta streaming-a (Komunitatea)

Ikerrek Twitch-en bideo-jokoen *stream*-ak ikusten ditu gauero. Bere *streamer* gogokoenak joko baten pertsonaia femenino bati buruzko kritika egiten du «progrejia» delako. YouTube-k *streamer* horren «clip» gehiago gomendatzen dizkio. Handik, «Kultura Woke-aren porrota» izeneko bideoetara doa. Azkenik, lkerri bideo-saiakera bat agertzen zaio esanez: «Emakumeek gure espazioak (bideo-jokoak) inbaditu dituzte eta gizonak baztertuta gaude».

Aztertu beharrekoa

Nola sortzen duten «guk haien aurka» sentimendua, aisialdia bezalako gune seguru batean.

Hausnarketan laguntzeko

Osatu bere «bidea»:

- Hasierako bilaketa (Normala):
- Algoritmoaren lehen gomendioa (Horia):
- Katearen amaiera (Red Flag - Manosfera):

Hausnarketan laguntzeko: Nola sentiarazi nahi du algoritmoak mutil hori?

Beldurtuta | Haserre | Seguru | Boteretsu (besteen gainetik) |






6. ERANSKINA: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak. 4. jarduera

Sare sozialetako algoritmoak sarritan mezu muturrekoak edo gatazkatsuak erakusten dizkigu, interakzio gehiago sortzen dituztelako. Baina, gai al gara mezu horien atzean dagoen helburua ikusteko?

ARIKETA: Alarma-Semaforoa

Irakurri zure taldeari egokitu zaizkion esaldiak eta markatu **X** batekin zein kolore dagokion. Hona bakoitzaren azalpena argiago izan dezagun zeri egiten diogun erreferentzia:

-  **RED FLAG (X):** Argi eta garbi diskurtso manipulazailerik edo gorrotuzkoa da edo gezurretan oinarritua.
-  **ARRETA (X):** «Umore» gisa mozorrotua, baina mespretxua ezkatzen duena. «Broma» gisa mozorrotuta dator, baina azpian mezu toxikoa du.
-  **SAFE (X):** Mezua errespetuzkoa da eta berdintasuna sustatzen du. Mezua errespetuzkoa da eta ez du inor gutxiesten

Azken zutabea (Zergatik?/Kategoria) osatzeko aukeratu hurrengo kategoriatik bat:

- Biktima-rola eta erresumina
- Maskulinitate toxikoa eta «Gizon Alfa»
- Emakumeen kosifikazioa eta kontrola
- «Woke» kultura eta espazioen inbasioa

IZENA: _____

TALDEA: _____

| Esaldia / Mezu mota |  |  |  | Zergatik? (Kategoria) |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|
| «Gaur egun gizon izatea arriskutsua da, edozein momentutan salaketa faltsu bat jarri ahal dizutelako.» | | | | |
| «Mutil batek ez luke bere sentimenduei buruz hitz egin behar, horrek ahul egiten zaitu.» | | | | |
| «Emakume baten balioa bere itxura fisikoaren araberakoa da.» | | | | |
| «Bideo-jokoak hondatzen ari dira pertsonaia femenino gehiegi sartzegatik.» | | | | |
| «Gizon 'alfa' zara edo 'simp' bat zara; ez dago erdibiderik.» | | | | |
| «Ez badut berehala erantzuten, nire lagunek ulertzen dute ikasten edo beste zerbaitetan nagoela.» | | | | |
| «Nire lagunari bideo bat bidali diot, berak ikusi du baina ez dit erantzun (check urdina). Haserre ote dago?» | | | | |
| «Zure gorputza tenplu bat da: entrenatu gogor besteek zu errespetatzeko eta beldurra izateko.» | | | | |
| «Emakumeen 'ezetzak' esan nahi du pixka bat gehiago saiatu behar duzula.» | | | | |

7. ERANSKINA: DBH 3. eta 4. mailarako eta Batxilergorako jarduerak. **6. jarduera**

| Gaitasuna / Maila | Bikain (4) | Oso ongi (3) | Nahiko (2) | Hobetu beharra (1) |
|--------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|
| Manosferaren analisia | Manosferaren kontzeptua eta bere komunitateak (inzel, alfa...) sakonki identifikatu eta azaltzen ditut. | Manosfera zer den badakit eta adibide batzuk identifikatzen ditut. | Kontzeptua ezagutzen dut, baina zailtasunak ditut bereizketak egiteko. | Ez dut ulertu zer den manosfera edo nola funtzionatzen duen. |
| Algoritmoaren funtzionamendua | Argi azaltzeko gai naiz algoritmoek nola funtzionatzen duten eta nola probokatzen duten erradikalizazioa. | Ulertzen dut algoritmoak eduki zehatzak gomendatzen dituela, baina azalpena azalekoa da. | Badakit algoritmoek eragina dutela, baina ez dut prozesua azaltzen. | Ez dut ulertzen sare sozialetako algoritmoen eta edukien arteko lotura. |
| «Red Flag» identifikazioa | Aktiboki bilatzen eta proposatzen ditut erreferente feminista fidagarriak eta euskarazkoak. | Irakasleak emandako erreferente batzuk ezagutzen eta baloratzen ditut. | Badakit batzuk badaudela, baina ez dut interesik erakusten berriak ezagutzeko. | Ez dut erreferente positiborik onartzen edo identifikatzen. |
| Erreferente feminista berriak | Aktiboki bilatzen eta proposatzen ditut erreferente feminista fidagarriak eta euskarazkoak. | Irakasleak emandako erreferente batzuk ezagutzen eta baloratzen ditut. | Badakit batzuk badaudela, baina ez dut interesik erakusten berriak ezagutzeko. | Ez dut erreferente positiborik onartzen edo identifikatzen. |
| Talde-lana eta Jarrera | Taldean modu eraikitzailean parte hartzen dut, besteen iritziak errespetatuz eta ikuspegi kritikoa emanez. | Parte hartzen dut eta errespetuzkoa da, baina ez dut eztabaida sakontzen. | Taldean egoten naiz, baina nire parte-hartzea oso eskasa edo pasiboa da. | Ez dut parte hartzen edo jarrera erasokorra/defentsiboa erakusten dut. |

5. BAliaBide GEhigArriak



Polita.
Harold Jiménez Canizales



Arturo eta Klementina.
Adela Turín eta
Nella Bosnia




Munstro arrosa.
Olga de Dios



Tximeleta-belarriak.
Luisa Aguilar eta
André Neves



Aske izan koloretan.
Dom Capistrón



Nik ere nahiko nuke mango bat.
Miren Juaristi eta
Aitziber Alonso



Basati.
Emily Hughes



Gora koloretako azazkalak!
Alicia Acosta eta
Luis Amavisca



Jonek Jone izan nahi du.
Dani Martirena eta
Ane Ibañez



Zerua gris dago.
Liebana Goñi eta
Isaac Martínez




Bonobo betaurrekodunen egiazko historia.
Adela Turín eta
Nella Bosnia



Nire tutua.
Zazu Navarro eta
Marta Abad Blay

GAZTELANIAZ



Malena Ballena.
Davide Cali y Sonja Bougaeva



Bonitas.
Stacy McAnulty eta
Joanne Lew-Vriethoff



Yo soy.
Raquel Díaz Reguera





FEMINISMOAREN sareetara salto egin

